

Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, umeen gurasoengana heldu nahi da kanpaina honen bidez

2011-2012 AURREMATRIKULAZIO KANPAINA UMEEN GURASOEI D EREDUARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA

Bizkaiko 43 udalerrik parte hartu dute *2011-2012 Aurrematrikulazio kanpainan* umeak lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoen artean banatzeko.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Iaz D bitamina, Aberastu bere heziketa! egitasmoa Bizkaiko hainbat udalerritan garatu zen eta izan zuen arrakasta neurtu ostean aurten ere kanpaina bera egitea erabaki da. Egitasmo hau Bizkaiko 22 udalerrri eta 3 mankomunitateren ekimen bateratua da eta informazio-kanpaina urte hasieran zabaldu da, 2-3 urteko umeen eskolatzeko-aldia baino zertxobait lehenago, gurasoek bidalitako informazioaren inguruan hausnarketa egiteko astia izan dezaten. Alkarbidek, Bizkaiko euskara teknikarien bilguneak, koordinatu duen ekimen honetan guztira 7400 liburuxka inguru banatu dira kanpainan parte hartu duten udalerrietan.

Helburua

Umeak eskolan lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoei D ereduari buruzko informazioa ematea eta eredu hori aukeratzeko arrazoiak azpimarratzea.

Parte hartzaileak

Bizkaiko 22 udal eta 3 mankomunitate. Guztira, honako 43 udal hauek:

Abanto-Zierbena • Arrieta • Arrigorriaga • Balmaseda • Berango • Berriz • Bilbo • Enkarterriko Mankomunitatea • Erandio • Etxebarri • Fruiz • Gamiz-Fika • Gatika • Gordexola • Laukiz • Leioa • Maruri-Jatabe • Mungia • Muskiz • Ortuella • Txorierriko Mankomunitatea • Urduña • Uribe Kostako Mankomunitatea • Zaldibar • Zierbena.

Kanpainaren edukia

Kanpainaren osagarri nagusiak hiru dira:

- Udaleko ordezkariaren batek (alkateak edo euskara zinegotziak) sinatutako gutuna, euskarazko ereduetan ikasteak dakartzan abantailen berri ematen duena.
- Gutuna bidaltzeko gutunazala. Gutunazalaren beraren barruko aldean agertzen dira D eredia aukeratzeko arrazoiak.
- Eskolan hasiko diren neska-mutikoentzako oparia (kanpainaren leloa idatzita duen neurgailua).

Hartzaileak

Gutxi gorabehera, kanpainaren sustatzaile diren udalerrietan bizi eta 2-3 urteko umeak dituzten 7400 familia izan dira.